

Erf.: Musika eskolako tasak 2017-2018
Espediente zk.: 17/

Karmele Muñoa Arrigain andereak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

TXOSTENA

Planteatutako gaia

Musika Eskolako 2017-2018 ikasturterako tasak onartzea.

Nork eskatu dauen txostena

Ofizioz.

Argudio juridikoak

a) Aurrekariak

Bakarra: Kontu batzordeak, Musika Eskolako 2017-2018 ikasturterako tasen proposamenaren aldeko irizpena emon dau.

b) Oinarri juridikoak

Bakarra: Tasa honeek onartzeko, Tokiko Ogasunak arautzen dauzan 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan aurreikusten dauzan pausoak emon behar dira: "1.Toki korporazioek beren tributuak ezarri, ezabatu edo antolatzeko hartzen dituzten behin-behineko erabakiak, edota dagozkien tributu kuotak zehazteko behar diren elementuak finkatzeko hartzen dituztenak, baita zerga-ordenantzen onespren eta aldaketak ere, zein bere erakundearen iragarki oholean erakutsiko dira hogeita hamar egunez; epe horren barruan, interesdunek espedientea aztertzeke eta bidezkoztat hartzen dituzten erreklamazioak aurkezteko aukera izango dute.

2. Toki erakundeek, edonola ere, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dituzte erakusketa iragarkiok. Horrez gain, hamar mila bizilagunetik gorako zuzenbidezko biztanleria duten erakundeek lurralde historiko honetan gehien saltzen diren egunkarietako batean argitaratu behar dituzte e iragarkiak.

3. Iragarkiak jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan, bidezkoak diren behin betiko erabakiak hartuko dituzte toki korporazioek, aurkezturiko erreklamazioak ebazteko, halakorik bada, eta ordenantzen behin betiko testua, hura indargabetzea edo behin-behineko erabakian aipatzen diren aldaketak onesteko. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa izandako erabakia behin betikotzat hartuko da, eta horretarako ez da beharrezkoa izango osoko bilkurak erabakia hartzea.

4. Edonola ere, bai aurreko paragrafoan aipaturiko behin betiko erabakiak, kategoria horretara automatikoki igarotzen diren behin-behineko erabakiak barne, bai ordenantzen edo beren aldaketen testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira, eta ez dira indarrean jarriko harik eta argitalpen hori gauzatu arte.

5. Hogeita mila bizilagunetik gorako zuzenbidezko biztanleria duten udalerrietan, bertako tributuak arautzen dituzten zerga-ordenantzen testu osoa argitaratuko da, ekitaldi ekonomiko bakoitzaren lehen lauhilekoaren barruan.

Edonola ere, argitaraturiko zerga-ordenantzen kopiak eman beharko dizkiote toki erakundeek eskatzen dituen".

Hau da:

- Hasierako onarpena Osoko Bilkurean
- Iragarpena BAOn, iragarki taulan eta aldizkariren batetan, 30 laneguneko epeko alegazino epea zabalduaz.
- Behin betiko onarpena Osoko Bilkurean, alegazinatorik egon ezker.
- Behin betiko onartutako testuaren iragarpena BAOn.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2017ko maiatzaren 26an

Karmele Muñoa Arrigain
Behin-behineko idazkaria